



KARABELEKO.ORG

KARABELEKO-AGIFES

Baratzeterapia



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Hernanin (Gipuzkoa) dago Karabeleko ekonekazaritza etxaldea. Agifesek (Buru Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Gipuzkoako Elkarte), Blasenea mintegi ekologikoak eta Kimu Bat lorezaintza eta paisajismo enpresak egin zuten bat 2014an, irabazi asmorik gabeko proiektua martxan jartzeko.

Baratzezaintza ikertzen dute bertan eta agroekologiaren filosofia gizarteratzen. Eta horrez gain, buru gaixotasuna dutenei eta baztertze arriskuan dauden beste kolektibo batzuei zuzendutako errehabilitazio psikosozialerako zentro ere bada Karabeleko.

Gaitasun sozialak eta autoestimua

Ekonekazaritza etxaldeko errehabilitazio arloaren ardura Agifesek dauka. Elkarreko erabiltzaileek aukeran duten programetako bat da Karabelekoa, eta nahi duena soilik joaten da bertako lurrak lantzerantz. Oier Iurramendi Karabeleko kideak kontatu digunez, astean zehar elkarteko 40 pertsona inguru pasatzen dira etxaldeketik, baina egunero bertan aritzen direnak 18-20 bat dira: "Agifesek bere psikologo eta monitoreak ditu arlo terapeutikoa lantzeko. Karabeleko ekintzak dinamizatu eta baratzea nola landu erakusten

diegu". Baratzean talde lanean arituz, gaitasun sozialak eta autoestimua lantzen dituzte. Errehabilitazioa bultzatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko autonomia eta garapen pertsonala daude oinarrian.

Bakoitzaren gaitasunen arabera

Baratzeko lanetan aritzen dira batez ere Karabelekora hurbiltzen diren Agifese-ko kideak: landatzen, barazkiak biltzen, bildutakoa txukuntzen... Karabeleko kontsumo taldeko saskiak prestatzen edota etxaldeko Ekodendan laguntzen ere aritzen dira. "Taldea jende oso ezberdina dago adinez, jakin-minez, baita gaitasunez ere. Bakoitzari lan ezberdina proposatzen zaizkio", azaldu digu Iurramendik. Berak egunero ikusten du baratzeak Agifeseko erabiltzaileei ekartzen dien onura: "Haiek landatutako eta ureztatutako letxua hazten ikusi ondoren, letxu hori bildu, prestatu eta etxe batera eramaten da han jan dezaten. Beren lanak ondorio ona duela ikusten dute, gizarteari, beste jendeari zerbait eskaintzen ari direla". Hala zioen Stanik sinatutako bineta batek: "Baratzeko ordu bat ehun psikoanali orduren pare da". Ezin uka edonorentzat izan daitekeela baratzea terapia on bat... ■



ALTZA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marraskilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,
"mattin" Martiarena, Ainara Azpiazu,
Antton Olariaga, Zaldieroa,
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

t @bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Irailak 23: Munitibar

Lekua eta ordua zehazteke.

Irailak 28: Elgoibar

Izarra elkarteak antolatuta.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545